

## 0.- SARRERA

Dagoeneko xeietan gaude eta horrek uda Bidankozen bere amaierara iristen ari dela esan nahi du. Hala ere, egunik onenak geratzen zaizkigu oraindik eta, eguraldiaren baimenarekin, ahalik eta gehien gozatzen saiatuko gara.

Xeiekin batera, bada, Bidankozarteko beste zenbaki bat iristen da, eta ohi bezala gure iraganeko hainbat gauza ezezagun erakusten, antzinako garaia gogoratzen eta erabiltzen ez diren hitzak berpizten

saiatuko gara, eta beharbada zerbait gehiago.

Horrela, gehiago luzatu gabe, 17. Bidankozarte honen edukiekin hasiko gara.

## 1.- HEMEROTEKA - ONDDOAREN URREZKO-AROA (1965)

Urrieta (udazkena), sartzen ari garen garaia, onddo eta perretxiko sasoi da. Gaur egun gehienontzat zaletasuna besterik ez dena (nahiz eta guztiok maila berean ez aritu, gure gustuen eta jakintzaren arabera) aspaldi oso garrantzitsua izan zen Bidankozekor familien ekonomiarako. Etxe batean komentatzen zen erosi zuten lehenengo autoa esnegorriek esker izan zela.

Kataluniatik etorritako tratulariek pinuz josita dagoen gure lurralde honetan



hazten dena eta haien mahaietan oso preziatua zuten onddoa erosten zuten: esnegorria, miskaloea edo erobellona (*Lactarius deliciosus*). Etxe batzuetan gaia biltzeaz eta hautatzeaz arduratzen ziren, berri honekin batera datorren argazkian ikus daitekeen bezala.

Artikulua eta argazkia 1965eko

urriaren 23ko *Diario de Navarra*-tik atera dira, orain dela mende erdi bat. Oso urte ona izan omen zen milioi erdi bat pezeta baino gehiago lortu baitzuten, diru dezente garai hartan.

Orduz geroztik euri asko egin du... Eta onddo asko atera dira! Ea aurtent...

### 500.000 pesetas han sacado en Vidángoz en la venta de hongos

Resulta difícil hacer una estadística sobre la cantidad de hongos que cada pueblo exporta, pero, traducido en dinero, en todo el valle se habla de varios millones.

Estas jóvenes, ejemplares, laboriosas, de Vidángoz hacen compatibles las labores de su casa con la dedicación al hongo.

Y concretando en los ingre-

sos, Vidángoz ha sobrepasado el medio millón de pesetas. Como dato curioso, mientras en varios pueblos del valle queda clausurada la campaña, se duplica la recogida de hongos en los montes de Vidángoz.

Los precios oscilan entre las 20 y 25 ptas. kg. Se espera que con las lluvias de estos días se prolongue la cosecha durante todo el mes de octubre.

F. H.

## 2.- HIZTEGI BIDANKOZTARRA - BASA-PIZTI GEHIAGO

Duela urtebete baino gehiago atal honetan bertan Bidankozen erabiltzen ziren hainbat basa-pizti izenak, zehazki ugaztunak eta hegaztiak.

Oraingoan beste talde batzuen txanda da:

### URETAKOAK

**Apatxarko:** Larrapo;  
**Ampallauri:** Zapaburu;  
**Kulirroio:** Barbo;  
**Pampabolas:** Zapaburu;  
**Txipa:** Ezkailu;  
**Zapatero:** Zapatari;  
**Zapo:** Larrapo, apo;



### BESTE BATZUK

**Gardatxo:** Musker;  
**Gurrimaio:** Katalingorri;  
**Kaparra:** Kaparra, akaina;

**Karranklan:** Eskorpioi;  
**Limako:** Barea;  
**Luzero:** Iputargi;  
**Marro:** Zomorro edo harra orokorrean;  
**Songrandilla:** Sugandila;  
**Tripurri:** Matxinsalto txiki;  
**Txitxal:** Zizare;  
**Txitxikuandri:** Sugandila;  
**Xargantana:** Sugandila;  
**Ziprina:** Matxinsalto tripaundi;

Ohi bezala, ziur aski ezagutzen ditugun beste hitz asko faltako dira, baina bestetan bezala hemen idatzizko erreferentzietan "Bidankozen bildutako hitzak" bezala agertzen direnak besterik ez ditut erakusten.

## 3.- BITXIKERIA -BIDANKOZTAR BATEN ARMARRIA IRUÑEAN

Batzuetan, gure etxeetan edo ezagun batzuenetan, gure abizenekin lotutako armarrak aurki ditzakegu. Gehienetan blaso horiek ez dute zerikusirik edo gutxi gure abizenarekin edo, hobe esanda, gure familiarekin.

Armarriak familiaren nobleziarekin dute lotura, horrela ulertuta pribilegio batzuk jasaten zuen maila soziala, hainbat zergen ordaintzeko edo soldadutza egiteko salbuespenak besteak beste.

Hau esanda, hurrengo galdera hau derrigorrezkoa da: bidankoztarrok, edo gure familiak, nobleak al gara? Gehienek ezetz pentsatuko duzue, gure herri hauetan ziur aski ia ez da nobleziarik egon, dukeez, kondeez eta horrelako titulu nobleak buruan izanda. Baina erantzuna ezusteko bat da: ia XIX. mendearen erdira arte Bidankozeko eta Erronkaribarreko auzotar guztiak (auzotarra hori izategatik eskubide batzuk zituen ulertuta, ez zela herrian bizi besterik ez) nobleak ziren Nafarroako Karlos III erregeak 1412an eskainitako *kaparetasun kolektiboari* esker. Pribilegio horrek oinarria zuen mairuen aurkako gerretako garaietan Fortun Gartzia (783 eta 804. urteen artean) eta Santxo I (822) erregeek eskainitako erregaliak, erronkariarrak Nafarroako Erregearen Bardeak erabiltzeko eskubidea ere lortu zuten garaia.

Horrela, bada, erronkariak guztiak nobleak ziren baina, ze armarrak zegokien hainbat familia ezberdin baziren? Ba, nobleziari dagokiona eta Nafarroako Erresumako Armari Liburuan adierazten den moduan, Erronkaribarra oinetxe bakarria bezala bihurtzen da, eta bere auzotar guztiak armari bakarria dute.

Hona iristerako eta aurrean azaldutako guztia kontuan hartuta, buruan izango dugu zein den armari horren irudia: errege mairuaren burua, maiz Kordobako Abderraman izendatua, Esako zubiaren gainean (artikulu honen ezkerrean, armarrak Vicente Aoiz de Zuzaren

*Armorial Navarron* (Nafarroako Oinarriko Liburutegia; Diario de Navarra, 2003) agertzen den moduan).

Aranan bertan, beraz, ez zuen zentzu handirik armarrak erakustea, auzotar guztiak baitzuten kaparetasun hori, baina kontu ezberdina zen Erronkaribarretik kanpora bizitzera joaten zirenean, hirietan bereziki. Batzuetan, kanpora ikastera joandako gazte erronkariarrei soldadutzara deitzen zieten, eta haiek *kaparetasun lekukotasuna* eskatzen zuten Aranari, nobleak zirela erakutsi ahal izateko eta, horrela, zerbitzu hori egitea saihestu.

Bestetan, artikulu honen aitzakizat hartu dugun horretan bezala, erronkariar bat hiri batera bizitzera zihoan eta bere kaparetasuna erakutsi behar zuen horrek zekarren onurak lortzeko. Jatorri noble hori egiaztatzean, familiako armarrak etxaurrean erakutsi ahal zuen.

Aztertuko dugun kasua XVIII. mendearen bukaeran Iruñera bizitzera joan zen bidankoztar batena da. San Saturnino kalean (antzinan poltsa-denden kalea) 20. zenbakian bizi zen, eta 1. solairuko altueran bere armarrak oraindik ikus daiteke, behealdean dagoen estankoaren gainean. 1803. urtean kaparetasun epaia lortu zuen bidankoztar hori Bidankozeko Salbotx etxeko (Uztarrotzen ere Salbotx etxea egon omen zelako) Joaquín Joseph Salbotx eta Rakax da.

Iruñeko etxe familiarrean erakusten den armarrak artikulu honen eskuinaldean dagoena da. Ikusi ahal den moduan, lau zatitan (koartela izenadunak) dago banatuta, adituen iritziz (Armarriak Iruñeko karriketan, Martinena Ruíz, J. J., Iruñeko Udala, 1997) haietako bakoitzak abizen baten irudikapena izanda: Salbotx /

Elizalde / Hualde / Rakax. Irakurri ezin izan dudak dokumentazioak horrela adieraziko duela suposatzen dut baina, dena den, armariaren esanahiaren nire iritzia emango dut, ezberdina baita.

Nire ustez, armarrak ez da lau abizenen irudikapena, haietako bakoitza koartel batean, baizik eta 1. eta 4. koartelatan agertzen dena Joaquín Joseph Salbotx Rakax jatorri erronkariarra irudikatuko zuten (por tzierto, Hualde zen bere 3. abizena, eta beharbada horregatik aipatzen da armariaren deskribapenean), eta gainerako 2 koartelak Maria Tomasa Elizalde bere emaztearen jatorriarekin izango zuten lotura, beharbada Aezkoan jatorria izango zena armarran agertzen den irudiaren arabera.

1. koartela, teorian Salbotx abizenarena, Kordobako Abderraman erregearen burua Esako zubiaren gainean erakusten du eta, bere atzean, 3 haitz (gaur egungo Erronkariko hirietako armarran burua eta zubia alde batetik eta haitzak bestetik daude). Argi geratuko zen, orduan, Salbotx jatorriz Erronkarikoa zela, eta beraz, Araneko armarrak erabiltzeko eskubidea zuela.

4. koartelak erbi-txakur (lebrak) eta gaztelu bat erakusten du, egungo Erronkaribarreko armarrak osatzen duten beste bi elementuak. Kontua da azken bi elementu haiek Erronkaribarrari eskaini zizkioten 1797. urtean, Joaquín Jose Salbotxen kaparetasun epaia baino 6 urte lehenago besterik ez, Aranak Konbentzio Gerran (1793-1795) erakutsitako jarrera heroikoarengatik. Lebrak leialtasuna sinbolizatzen du, eta gazteluak, berriz, sendotasuna.

Esandako guztiarekin, ziur aski Iruñeko Alde Zaharretik emango duzuen hurrengo ibilaldian derrigorrezko geldialdi bat egingo duzue San Saturnino karrakako 20. zenbakiaren aurrean.





## 4.- OIKONIMIA - KOXME ETXEA


Zenbaki honi dagokion etxea, *Anarna* eta *Montes* etxeekin gertatu zen moduan, ez dago gaurko Bidankozen: *Koxme* etxeaz ari gara edo *Pelairea zaharra* beste batzuen esanetan. Dirudienez, beste izen batzuk ere izan zituen.

Gaur egun, *Koxme* etxearen zati bat desagertutako etxearen jabeen baratza da. Beste zatiak, berriz, etxearen desagertuaren berri ematen digu: 1950ko hamarkadan herria zeharkatzen duen errepidea egiteko erabili zen, beraz, “*aurreapenak aurretik eramane zuela*” esan dezakegu. Artikulu honen lehenengo argazkian, 1929an zerutik egindakoa, goi-aldeko erdialdean *Koxme* etxea ikusten da. *Juanko zubik* (argazkian behean ezkerrean) 20 urte beranduago eraikiko zen zeharbidetaren norabidea hartzen badugu, argi ikusten da etxearen erditik pasatzen dela. Denon ongizate zela eta, etxea desagertu zen eta bertan bizi zen familia gaurko *Pelairea* etxera joan zen (garai hartan *Artutx* etxea). Etxe horretaz Bidankozarteko 6. zenbakian aritu ginen.

1929ko argazkiaz gain, Nafarroako Diputazioak 1956 eta 1957an beste argazki batzuk egin zituen. Bidankozeko argazkian *Koxme* etxea ikusten da oraindik, baina kalitatea oso ona ez denez ez du merezi argazkia hemen erakustea.

Etxea *Salsipuedes* karrikaren bukaeran zegoen. Izan ere, errepidea egin arte, etxearen atzealdean ugaltza (erreka) besterik ez zegoen. Beraz, behetik ez zegoen ateratzerik eta hortik dator kio izena karrikari. Artikulu honen behealdean dagoen argazkia *Pantxo* etxeko Urzainki Urzainki ahizpek 1930ean egin zuten *Errotaren* aurrean, eta bigarren planoan *Koxme* etxearen atzealdea ikus daiteke. Etxe honen irudi gutxi dago eta argazki hau Santiago Salbotx-ek (*Calderero*) 2000. hamarkadan egindako bilketari esker eskuratu ahal izan dugu.

Etxearen historia bertatik hainbat familia pasatu direla esan



daiteke. Etxea eraitsi zutenean, 1950eko hamarkadan, José Pelairea Fuertes (*Koxme*) eta Eugenia Gayarre Necochea (*Gaiarre*) lehenengo seme-alabekin bizi ziren. José etxekoa zen, Cosme Pelairea Villagoiz (*Ustaize/Koxme*) eta Maximina Fuertes Maisterra (*Angelena/Koxme*) semea.

Cosme horrek etxeari izena eman zion, eta beste batzuek erabiltzen zuten *Pelairea* izena Cosme honen abizena hartzen ari ziren. *Baldragas* ere esaten zioten Ustaizeko bere jaiotxeak izen hori



zuelako. Baina ez Cosme ezta bere emaztea Maximina ere ez ziren etxe honetakoak, nahiz eta Maximina ezkongabea zenetik bertan bizi izana izatea. Dirudienez, Fuertes Maisterra familiak 1893. urtean etxea erosi zuen, urte horretan eliza-matrikuletan agertzen hasi baitziren.

Familia horren aurretik *Koxme* etxea 20 urtez egon zen hutsik edo alokatuta. Maizterren artean, behin betiko etxea aurkitu aurretik, hainbat familia daude, Urzainqui Biesa (1887-1891), Carrica Iriarte (1883-86), Guinda Navarro (1879-82) eta Aizagar Andreu (1876-78) besteak beste.

XIX. mendearen hasieratik jabea izan zen familiaren azkeneko partaidea 1872an hil zen: Apolinaria Fermiña Sanz Mainz (*Molena/Koxme*). Nahiz eta jatorriz etxekoa ez izan, etxeko seme batekin ezkondu zen: Esteban Orduna Urzainki (*Koxme*). Baina ez zuten seme-alabarik izan ezta etxera oinordekorik erakarri ere.

Esteban Orduna Urzainqui (*Koxme*) 1810ean, urtebeteko umea zenean, etxe honetan bizi zen, ziur aski bertan jaio zelako. Aita Joseph Orduna Melero zuen, Burgin jaioa baina Erronkarin bizi zena, eta ama Josepha Martina Urzainki Sanz, etxekoa izango zena.

Honaino etxearen historia. Izenari dagokionez, orain arte aipatu ditugun izenez gain, badirudi *Kantero* izena ere izan zuela, bertako biztanle baten ogibidea hori omen zelako (hargina edo gaur egungo igeltseroaren antzekoa). Ez dakigu, hala ere, nor zen kantero hori.

Laburbilduz, *Koxme* etxea, izen asko, familia asko eta, ziur aski, historia askoren jabea.

## 5.- TOPONIMIA - TXORROTXARRIA

Gaurkoan aztertuko dugun lekuizena *Txorrotxarria* da, eta Bidankozeko udalerriko iparraldean eta *Bintze* ugaltxaren (erreka) eskuinaldean kokatuta dagoen mendi bati ematen dio izena.

*Txorrotxarria Astipuntako* iparraldean dagoen muinoari deitzen diogu. Haraino iritsi daiteke *Pulpitera* eta aipatutako *Astipunta* igaro ondoren Hegoaldetik etorri gero, *Azaltegiatik* Ekialdetik edo *Hilariongo Garateik* Iparraldetik.

*Txorrotxarria*ko gailurra 1522 metroko altitua du, Bidankozeko udalerriko *Bintze* ugaltxaren eskuinaldeko tontorrik garaiena izanda. Bertan Anaitasunako mendi-taldeak mendi-postontzi bat ipini zuen 1993. urtean.

Mapa topografiko ofizialen arabera, paraje honek *Iraztoiburiarekin* du muga Iparraldean; Hegoaldean *Astipuntarekin*; Ekialdean *Behien trozoarekin*; eta

Mendebaldean *Pinudi Handiarekin* eta *Armuskorekin*.



Baina mapei begira zalantza bat sortu ahal zaigu, deskribatzen ari naizen kokapenaz gain, *Txorrotxarria* izena agertzen baita ere oso urrun ez dagoen beste toki batean, hurrengo mugak izanda: *Armuskoa* Iparraldean, *Kaskabola* Hegoaldean, *Olaberria* Ekialdean eta *Igari* Mendebaldean.

Etimologikoki, *Txorrotxarria Zorrotz* eta *-harria* hitz-elkartetik dator, hau da, *Zorrotzari*, beharbada gai hori ugari izango zelakoan jatorrian izen hori jaso zuen tokian. Baten batek, agian, '*harri zorrotza*' esanahia proposatuko luke, baina kasu horretan parajeak *ArriTxorrotza* izango zuen izena eta ez alderantziz. Gainera, teoria hau oinarrituko lukeen haitzik edo haririk ez dago, horregatik aukera hau baztertuko dugu.


Toki batean ugari den gai baten aipua sarri gertatzen den toponimian, Bidankozen inguru batean ohikoa den landaretzari edo animalari bati aipua arruntago diren arren. Baina hala ere, Bidankozen badugu mota honetako beste toponimoren bat: *Lexarra*, paraje horretan arrunta den harri motaren izena hartzen duena, '*legarra*' kasu honetan.

## 6.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK (BERE NORTASUNA)

Azken bi zenbakietan atal hau ez egon ondoren, eta oraingo hau nahiko laburra izan arren, bueltan daude Marianoren gutunak, eta haiekin batera duela mende bateko Bidankozeren berriak.

Gaurkoan bere idazkietan utzi zituen bere nortasunaren erakusgarri batzuk aipatuko ditugu. Ohar hau 1905eko otsaileko gutunetik hartuko dugu, 14. Bidankozarten aztertu genuen azken gutuna hain zuzen ere.

Bertan Marianok *Resurreccion M<sup>a</sup>* Azkueri idazten dizkion gutunei buruzko bere pentsamenduak erakusten dizkio: '*Aspaldi honetan bi pentsamendu ditut buruan sartuta:*



*Batek zera esaten dit: D. Resurreccion aspertuta dago zure uskaraz, zure gutunez, zure idaztekoeraz; daukan lanarekin, eskergabe batekin asperturik, botatzen ditu zure gutun guztiak mahai azpira; ez ezazu gehiago idatzi.*

*Besteak zera esaten dit: ez sinetsi horri, badakizu zure uskara gogoko du eta, D. Resurreccion inoiz ez da aspertuko zure uskaraz, zure gutunez eta zure idaztekoeraz; badakizu nahiz eta lan handietan sartuta ibili, denoi gauza guztietan kasu egiteko burua eta pazientzia daukala; badakizu ere, pilatutako lan asko izan arren, D. Resurreccionek ez du akatsik egingo, lanari emanda baitago, astoa makilkadei emanda dagoen moduan, ez utzi orain arte bezala idazteari.*

Gure Mariano langile nekaezina zen, baina ez zuen *neketsu* izan nahi. Azkuek horrelakoa ez zela baieztatu zion eta, haien elkarlanari esker Bidankozek badu bere ohorezko tokia Euskararen mapan.

## 7.- BUKAERA

Honaino iritsi da 17. Bidankozarte hau, aurreko bi zenbakietan arrazoi ezberdinengatik falta izan ziren bi atal berreskuratutak. Bertan zerbait bitxia edo ezagutzen ez zenutena edo oroimen onak ekarrarazi dizkizuen zerbaita urkitu izana espero dut.

Hurrengo zenbakia, Gabonetan, edukiez beteta: 1916ko jaiotzak eta ezkontzak, Lixalte etxea, Turrubeltza, Don Nikolasen heriotzaren 20. urteurrena, aurreko mendeetako zorrak...

Ordura arte, urrieta ona izan eta ea ondoko asko biltzen dugun.

Agur bero bat eta hurrengora arte.

LAGUNTZAILE:

AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
VIDANCOZ



BIDANKOZEKO  
AIZA BULGUA